

# BEÑAT ETXEPARE

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKI ARETOA

SALA DE TEATRO PARA NIÑOS/AS Y JÓVENES

Temporada 2016 - 2017 Denboraldia



Antolatzailea / Organiza

Babeslea / Patrocina

Dirulaguntza / Subvencionan



TEATRO ANTZOKIA  
**PRINCIPAL!**  
VITORIA-GASTEIZ



Laguntzaileak / Colaboran

Bazkidea / Asociada a

70Á  
EL CORREO



Casa del Libro

BIARGI SAREA

## Ikusle izatearen artea

*Jakin-nahiez beteriko begiradarekin hasi dugu denboraldia, herritar gazteenen artean zuzeneko arteekiko begirada berriak eragiteko prest.*

*Hegoak zabaldu ditugu ikusle berri horiei bere alfabetatze artistikoan eta sormenaren garapenean laguntzeko.*

*Zuen begi niniak ilusioz bete nahi ditugu, guztiok batera erronka berriei aurre egiteko:*

- **Proposamenen pertsonalizazioan aurrera egitea**, parte hartzen duen ikastetxe bakoitzaren proiektura eta ikusleria zehatz batetara egokituz.
- **Ikasketa aktiboa ikusgariago egitea**, ekintza eszenikoak ezagutzaren beste arlo batzuekin lotuz eta teknologia berrien sormenezko erabilera bultzatuz.
- **Artearekiko grina piztea**. Emozioak ikusleen sormenaren eta irudimenaren garapenerako motore modura jartzea.

*23. edizio honetan, arte-eremu ezezagunak ikuskatzea, imajinatu ezinezko istorioekin kuxkuxean ibiltzea eta sortzeko duzuen talentua deskubritzea proposatzen dizuegu. Zuen zain egongo gara!*

### DENBORALDI AURKEZPEN KAFAA

*Denboraldia zapore onarekin hasi nahi dugu eta horretarako irakasleak, aktibitate programa berria ezagutzera gonbidatzen ditugu, etapa berrirako hausnarketak eta iradokizunak elkar trukatzeko asmoarekin, kafe bat hartzen dugun bitartean.*

*Kafea bitartean, programatutako ikuskizun guztiak eta «**Ikusle izatearen artea**» programa osatzen duten ekintza paraleloak aurkeztuko dira.*

*Ekitaldi hau **Irailaren 5ean** izango da, egun horretan **Antzokian** bi kafe ospatuko direlarik, lehenengoa **10:00etan** eta bigarrena **12:30etan** izango dira.*

## El arte de ser espectador/a

Levantamos el vuelo de la nueva temporada con ojos curiosos e inquietos, dispuestos a provocar nuevas miradas sobre las Artes en vivo, en la ciudadanía más pequeña.

Extendemos las alas para acompañar a estas nuevas audiencias en su alfabetización artística y en el desarrollo de su creatividad.

Aspiramos a teñir vuestras pupilas de ilusión para afrontar juntos nuevos retos:

- **Avanzar en la personalización de las propuestas**, adecuándolas al proyecto de cada centro escolar participante y al público concreto.
- **Visibilizar el aprendizaje activo**, vinculando las acciones escénicas con otras áreas del conocimiento e impulsando el uso creativo de las nuevas tecnologías.
- **Alentar la pasión por el Arte**. Colocar las emociones como motor del desarrollo creativo de los espectadores/as y de su imaginación.

Os proponemos, en esta **23 edición**, ojear territorios artísticos desconocidos, curiosear historias inimaginables y descubrir vuestros talentos creativos. ¡Os esperamos!

### CAFÉ PRESENTACIÓN DE LA TEMPORADA

Queremos comenzar la temporada con un buen sabor, invitando al profesorado a descubrir el nuevo programa de actividades, mientras disfrutamos de un café e intercambiamos reflexiones y sugerencias para la nueva etapa.

Durante el café se presentarán cada uno de los espectáculos programados, así como las actividades paralelas que conforman el programa «**El Arte de ser Espectador/a**».

Se realizarán dos cafés el **5 de Septiembre**, el primero a las **10:00 horas** y el segundo a las **12:30 horas**, en el **Teatro**.





## VITAL-ANTZERKI.

### FAMILIAREKIN ANTZERKI JOLASEAN

Jarduera honen helburua antzerki jolasa sustatzea da, antzezpenaren ostean, Abenduan Aretora hurbiltzen diren **3 eta 5 urte arteko 3.500 ume** inguruen familietan.

Gabonetan, **Paraiso Antzerkia** taldearen **Kubik** ikuskizunaren emanaldiak bukatzean, ikusleek gutun-azal bat jasoko dute eta gero etxean gurasoekin ireki behar dute. Barruan gurasoentzako gutun bat eta opari bat topatuko dituzte. Gurasoentzako gutunak haurrek ikusitako ikuskizunari egingo dio erreferentzia eta, seme-alabekin jolasteko aproposa izango da. Horrela, haurren eta gurasoen arteko komunikazioa indartuko da antzerki-esperientziaz baliatuz ikusle txikiek euren emozioak adieraz ditzaten sustatuko baita.

Ekintza hau **Fundacion Vital Fundazioarekin** elkarlanean egiten da.

## KAFE DIDAKTIKOAK

Kafea hartzeko tarte didaktikoetara joatea pedagogia artistiko eta aktiboaren esperientzia batean parte hartzeko aukera da irakasleentzat. **Bertratzten direnek sormenerako materialen pack bat jasoko dute ikasgelarako.** Pack horrekin proposamen berriak bultzatu ahalko ditu haurrek.

Ikuslearen prestakuntzarako gidaliburuak kafea hartzeko tarte didaktikoetan emango dira eta ostean eskuragarri egongo dira Teatro Paraisoren web orrian.

Jarduera hau kafe baten aurrean egiten da, **La Casa del Libro**ren instalazioetan, antzerkia egingo den **astearen aurreko asteartean, arratsaldeko 6etan.**

## PROIEKTU ARTISTIKOEN EGOITZA

Ikusleak gure inguruko konpainien sormen-lanei hurbilaztea proiektuaren lehentasunezko helburua da. Baita bereziak diren ikuskizunen euskarazko bertsioak ekoizlea ere.

Denboraldi honetan lau proiektu artistiko bultzatu eta lagunduko ditugu: **Panta Rhei**-ren **Tira! Aurrera!** ikuskizuna berrezartzea, **Teatro Paraiso** eta **Donostia 2016**ren lan berria, **Kooperarock**, eta **ZumZum Teatro**-ren **Zapata-kaxa** batean bizi zen neska eta **Fernando Hurtado Konpainia**ren Lorez lore ikuskizunen euskarazko bertsioak.

## AGERTOKIRA!

Jarduera eszenikoen praktikak prestakuntza eta Arte Eszenikoaz; hizkuntza artistiko bezala, gozatzea ahalbidetzen du, ikusle izatearen atsegina aktibatuz.

Denboraldi honetan, Aretok ikastetxeetan antzeztuko diren 3 proiektu eszeniko lagunduko ditu. Horiek proiektu artistikoen egoitzekin uztartuko dira, ahal den heinean.

## VITAL-ANTZERKI.

### JUGAR AL TEATRO EN FAMILIA

El objetivo de esta actividad es impulsar el juego teatral, después de la representación, en cada una de las familias de los aproximadamente **3.500 niños y niñas de 3 a 5 años** que acuden a la Sala en Diciembre.

En Navidad, al finalizar las representaciones del espectáculo **Kubik** de **Teatro Paraiso**, los espectadores/as recibirán un sobre sorpresa que deberán abrir en casa con sus padres. En el interior encontrarán una carta para los papás y mamás, y un regalo sorpresa. La carta dirigida a los padres, hará referencia al espectáculo visto, además de invitarles a jugar con sus hijos/as. Se posibilitará así la comunicación entre los niños/as y sus padres, en relación a la experiencia teatral, impulsando la expresión de las emociones de los pequeños/as espectadores/as.

Esta actividad se realiza en colaboración con la **Fundación Vital Fundazioa**.

## CAFÉS DIDÁCTICOS

Asistir a los cafés didácticos es para el profesorado una oportunidad de participar en una experiencia de pedagogía artística y activa. **Los asistentes recibirán un pack de materiales creativos para su aula**, que les permitirá impulsar propuestas innovadoras con sus niñas y niños.

Las guías de formación del espectador/a se entregarán en los cafés didácticos y estarán disponibles posteriormente en la página web de Teatro Paraiso.

Esta actividad se realiza en torno a un café en las instalaciones de **La Casa del Libro**, el **martes anterior a la semana de representaciones** del espectáculo, en horario de **6 tarde**.

## RESIDENCIA DE PROYECTOS ARTÍSTICOS


Vincular a los/as espectadores/as con los proyectos creativos de diferentes compañías de nuestro entorno es un objetivo prioritario del proyecto. También la realización de versiones en euskera de espectáculos singulares.

Esta temporada vamos a impulsar y acompañar cuatro proyectos artísticos: la reposición del espectáculo **Tira! Aurrera!** de **Panta Rhei**, la nueva creación de **Teatro Paraiso** y **Donostia 2016**, **Kooperarock**, y las versiones en euskera de los espectáculos **La niña que vivía en una caja de zapatos** de **Zum Zum Teatro** y **De flor en flor** de la **Compañía Fernando Hurtado**.

## A ESCENA!

La práctica de la actividad escénica contribuye a la formación y disfrute de las Artes Escénicas como lenguajes artísticos y activa el placer de ser espectador/a.

Esta temporada la Sala va a acompañar 3 proyectos escénicos que se realicen en los centros escolares. Estos se vincularán en lo posible con las residencias de proyectos artísticos.



*Proiektu honetan parte hartu ahal izateko erreserba egiten denean espresuki eskatu behar da, horrela eskura dauden baliabideak antolatu baitaitezke.*

*Antolatzaileak interesa dutenekin harremanetan jarriko dira urrian.*

## EHUKO IRAKASLE ESKOLAREKIN ELKARLAN HITZARMENA

*Proiektu honen helburu nagusia da etorkizuneko irakasleak Aretoaren proiektu artistikoarekin eta kultura-ohituren sormenarekin harremanetan jartzea, lan eszenikoak ikusiz eta antzetzuz eta ikasgelarako proposamen didaktikoak prestatuz.*

## IKUSLEENTZAKO SARIAK

*2016/2017 ikasturtean, Beñat Etxepare Ikusleentzako Sarien hogeigarren edizioa antolatuko da. Sariak denboraldi-amaierako jaialdian emango dira, 2017ko ekainean. Bertako hainbat artista hartuko dute parte.*

*Aipatutako sarietan parte hartzeko, ikuskizunaren ondoren sariaren triptikoak (irakasleei emango zaizkienak) igorri beharko zaizkigu, bertan ikusitako ikuskizunari buruzko iritziak, irudiak, iradokizunak, kritikak, etab. azalduz. Gutunak honako helbide honetara bidali beharko dira:*

**Paraiso Antzerkia - Abetxuko Pueblo 14 - 01013 Vitoria-Gasteiz.**

*Ikuslearentzako sarien hartzearen epea 2017ko ekainaren 5ean amaituko da.*

*Lau sari mota emango dira:*

- **Ikusleei:** bost sari indibidual adin maila bakoitzeko, guztira 20 sari eskainiz. Sariak honako opari hauetaz daude osatuta: Fundación Vital Fundazio-aren opari bat, Caype dendaren beste erregalu bat eta Vitoria-Gasteizko udalak eskainitako Principal Antzokirako sarrera-txartelak. Baita, maila bakoitzarentzako beste sari berezi batzuk emango dira ere.
- **Ikastetxeei:** ikuslearen iritziaren inguruan lan interesgarriena egin duten Ikastetxeei zuzendutakoak. 3 sari emango dira, honako opari hauetaz osaturik: La Casa del Libro Liburudendaren liburu sorta bat eta Paraisok emango dituen datorren denboraldirako 25 sarrera-txartelez osatutako abonua bat.
- **Irudi grafiko onenari:** ikusle batek antzerkia irudikatuz egindako irudi grafiko onenari opari bat emango dio EITB-ek.
- **Antzerki kritika hoberenari:** DBH-ko ikasle batek egindako antzerki kritika hoberenari. El Correo egunkariak emandako saria.

Para participar en este proyecto es necesario solicitarlo en el momento de realizar la reserva para organizar los recursos disponibles.

Durante el mes de octubre la organización se pondrá en contacto con los/as interesados/as.

## CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LA UPV/EHU ESCUELA DE MAGISTERIO.

El objetivo general que persigue este proyecto es poner en contacto a los futuros profesores/as con el proyecto artístico y de creación de hábitos culturales de la Sala, a través de la visualización e interpretación de creaciones escénicas y el diseño de propuestas didácticas para el aula.

## PREMIOS AL ESPECTADOR/A

Se convoca para el curso 2016/2017 la vigésima edición de los Premios Beñat-Etxepare al espectador, que se entregarán en la fiesta final de temporada, en Junio de 2017. Esta contará con la intervención de diversos artistas locales.

Para participar en dichos premios, es necesario remitir después de la representación los trípticos del premio (que se facilitarán a los/as profesores/as) incluyendo opiniones, imágenes, sugerencias, críticas, etc., respecto del espectáculo visto. Las cartas han de enviarse a:

**Teatro Paraíso – Abetxuko Pueblo 14 – 01013 Vitoria-Gasteiz**

El plazo para la recepción de los premios al espectador/a finaliza el 5 de Junio de 2017.

Se concederán cuatro tipos de premios:

- **A los espectadores/as.** Cinco premios individuales por cada nivel de edad hasta un total de 20 premios. Estos consistirán en un regalo de Fundación Vital Fundazioa, otro de Caype y entradas para el Teatro Principal aportadas por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. También existirán varios premios finalistas por nivel con un regalo sorpresa.
- **A los Centros Escolares** que hayan realizado una labor más interesante en relación a la opinión del espectador/a. Se concederán 3 premios consistentes en un lote de libros otorgado por la librería Casa del Libro y un abono de 25 entradas aportadas por Teatro Paraíso para la próxima temporada.
- **A la mejor imagen gráfica** realizada por un espectador/a representando el teatro. Premio otorgado por EITB.
- **A la mejor crítica teatral** realizada por un alumno/a de ESO. Premio otorgado por el periódico El Correo.



Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren zikloetarako ikuskizuna  
Espectáculo para Segundo y Tercer Ciclo de Primaria

## BAMBALINA TEATRO-k

aurkezten du / presenta

KAFE DIDAKTIKOA

Azaroaren 2an, asteazkena // Miércoles, 2 de Noviembre

Entrega de guía y materiales para el aula

# CUBOS

Inspirado en la teoría de las inteligencias múltiples

Egilea eta Zuzendaria / Autor y Director **Jaume Policarpo**

Antzezleak / Intérpretes **Ruth Atienza, Alex Cantó, Ángel Figols**



*Howard Gardner-en adimen anizkunaren teorian oinarritutako ikuskizuna. Adierazpenaren eta ezagutzaren arlo desberdinetara eramaten gaituzten 9 irudi erabiliz istorio bat kontatzean tematuta dauden 3 antzezle.*

*3 ikusleek irudi bat aukeratuko dute kubo bakoitzeko eta ikusizko sekuentzia bat osatuko da 9 irudiekin. Antzezleek ahoz garatu beharko dute sekuentzia hori.*

*Irudi hauen laguntzarekin, hezur eta mamizko pertsonaiak eta ñabarduraz beteriko egoerak antzeztu beharko dituzte. Antzezlearen betiko erroka: hitzekin liluratzea!*

*Zer aukeratuko dute ikusleek? Zein istorio asmatuko dugu marrazkiekin? Eta zein objektu aterako da kuboetatik, istorioa kontatzen laguntzeko?*

*Aurreikusitako ezin daitekeen ikuskizuna da eta bertan funtzio bakoitza bakarra da. Eszenatokian agertzen diren elementu guztien konbinazioak (kuboetako irudia, horiek agertzen diren ordena, ikusleen parte-hartzea...) antzezlanaren eraikuntza eta garapena zehaztuko ditu.*

*Inprobisazioa lan-tresna nagusi modura, eta txotxongiloak eta objektuak aliatu on modura.*

Un espectáculo inspirado en la teoría de las inteligencias múltiples de Howard Gardner. 3 actores empeñados en contar una historia a partir de 9 imágenes que remiten a diferentes ámbitos expresivos y del conocimiento.

Tres personas entre el público elegirán una imagen por cada cubo, con las 9 imágenes se formará una secuencia visual que los actores deberán desarrollar a través del lenguaje.

Apoyándose en imágenes planas deberán encarnar personajes de carne y hueso, y recrear ambientes llenos de matices. El eterno reto del actor: ¡seducir con la palabra!

¿Qué elegirá el espectador/a? ¿Qué historia inventaremos con los dibujos? ¿Y qué objetos saldrán de los cubos para ayudarnos a contar la historia?

Un espectáculo imprevisible, en el que cada función es irrepetible. La combinación de todos los elementos que aparecen en escena (imágenes de los cubos, orden en el que aparecen, participación del público...) determinará la construcción y desarrollo del espectáculo.

La improvisación como principal herramienta de trabajo y los títeres y objetos como mejores aliados.

Hizkuntza / Idioma **Gaztelaniaz / Castellano**

Datak / Fechas **Azaroak 9 Noviembre**

Ordutegiak / Horarios **9:30 - 11:15**

Iraupena / Duración aprox. **50 min.**



DBH-ko 1., 2. eta 3. mailarako ikuskizuna  
Espectáculo para 1º, 2º y 3º de ESO

KAFE DIDAKTIKOA

Azaroaren 8an, asteartea // Martes, 8 de Noviembre

Entrega de guía y materiales para el aula

PRODUCCIONES MOHICANO +  
PABELLÓN 6-k

aurkezten dute / presentan

# TEATRO MOHICANO

Egilea / Autor **Felipe Loza**

Zuzendaria / Director **Ramón Barea**

Antzezleak / Intérpretes **Aitor Borobia, Mikel Ibañez, Leire Orbe**

*Gazte komedia musikala eta didaktikoa.*

*Aurrekontu baxuko antzerki-konpainia bat osatzen duten hiru aktore gaztek, eguneroko gora behera komikoak alaitasunez eta zirraraz bizi dituzte. Beraien kabuz sortutako proiektua eraikitzearen ametsa indartsuagoa da, errealitateak jartzen dizkien trabak baino.*

*Hiru gazte hauek, aktore izatearen alde kaskarrena bizitzen ari dira, baina lanbide horren miseria artean, adiskidetasunaren indarra, talde-lanaren plazerak eta irudimenaren eraginkortasuna aurkituko dituzte. Beraiekin antzerkiak duen eusteko indarra boteretsua dela ohartuko gara, zeren eta sustraituta baitago giza kulturaren antzinako tradizioetan; **hartarako antzerkiaren historiari eta gidoi bat egiteko oinarritzko teknikei begiratu bat emango diogu.***

*Gazte hauekin giza korrante kultural baliogarri, dibertigarri eta hurbilaren partaide sentituko gara, eta ez du irudimena baino besterik behar izango. Haiekin barre egingo dugu, hunkituko gara, antzerkiak maite-minduko gara.*

Una comedia musical, juvenil y didáctica

Tres jóvenes actores, componentes de una compañía de teatro de bajo presupuesto, viven sus cómicos conflictos cotidianos con energía apasionada y alegre. La ilusión de construir un proyecto creativo propio es más fuerte que todas las dificultades que pueda oponer la tozuda realidad.

Estos tres muchachos, que están viviendo la versión menos glamurosa de la profesión de actor, descubren entre las miserias de su oficio la fuerza creativa del compañerismo, los placeres del trabajo en equipo y la eficacia de la imaginación. Con ellos descubrimos que la energía resistente del teatro es tan poderosa porque tiene sus raíces en la más antigua tradición de la cultura humana; para ello, **repasamos la historia del teatro y las técnicas básicas de la construcción del guión.**


Con estos jóvenes nos sentimos participes de una corriente cultural humana, divertida, útil y asequible, que no necesita más medios de producción que una mente creativa. Nos reímos con ellos, nos emocionamos, nos enamoramos del teatro.

Hizkuntza / Idioma **Euskaraz edo Gaztelaniaz / Euskera o Castellano**

Datak eta Ordutegia / Fechas y Horario **Azaroak 15, 16 Noviembre. Castellano  
9:30 - 11:30**

**Azaroak 17 Noviembre. Euskaraz  
9:30 - 11:30**

Iraupena / Duración aprox. **60 min**



Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako ikuskizuna  
Espectáculo para Primer Ciclo de Primaria

## ZUM ZUM TEATRE-**k**

aurkezten du / presenta

KAFE DIDAKTIKOA

Azaroaren 15ean, asteartea // Martes, 15 de Noviembre

Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira

# ZAPATA-KAXA BATEAN BIZI ZEN NESKA LA NIÑA QUE VIVÍA EN UNA CAJA DE ZAPATOS

Egilea/ Autor **Ricardo Alcántara**

Zuzendaria/ Director **Ramón Molins**

Antzezlea / Intérprete **Begonya Ferrer**

*Antzerkiak eta teknologiak oso ikuskizun poetiko eta dibertigarria bilakatzen dute Zapata-kaxa batean bizi zen neska. Narratzailearen ahotsak istorioan zehar gidatuko ditu ikusle gazteenak eta protagonista txikiaren abestiak izango ditu nahastean, bere beldurrezko eta fantasiazko mundua erakusten duten irudiekin, eszenaren erdian den gorpuzdun kutxa handiarekin eta haren inguruan ustekabean agertzen eta desagertzen diren pertsonaia aldakorrekin.*

*Julia zapata-kaxa batean bizi den neskatoa da. Han pixka bat aspertzen da, baina aldi berean oso seguru sentitzen da. Egun batean arkatx magiko bat aurkituko du, ate bat marraztuko du eta mundua ikustera aterako da. Gero tximeleta bat marraztuko du, eta gero lore bat... egun batean pilota batekin estropezu egin eta haren lagun egin arte. Elkarrekin jostatuko dira biak eta oso ondo pasatuko dute, kaxa haien ametsak gordetzeko txikiagi geratu arte, eta bertatik joatea erabakiko dute.*

*Istori honetan zapata-kaxa batean bizitzeak dakarren erosotasunean aurkituko dugu protagonista. Nahiago du horrela bizi, jarrera askea izateak dakartzan arriskuak bere gain hartu ordez, horixe baitakar bere babeslekua uzteak. Adiskidetasuna beldurraren aurkako erremedio ona da.*

En *La niña que vivía en una caja de zapatos*, teatralidad y tecnología nos conducen a un espectáculo muy poético y divertido donde la voz del narrador guiará a los pequeños/as espectadores/as a través de la historia, y se mezclará con canciones de la pequeña protagonista, con las imágenes que proyectan su mundo de miedo y fantasía, con la gran caja corpórea que preside la escena y los personajes volátiles que aparecen y desaparecen por arte de magia a su alrededor.

Julia es una niña que vive en una caja de zapatos. Allí se aburre un poco, pero a la vez se siente muy segura. Un día encuentra un lápiz mágico, dibuja una puerta y sale a ver el mundo. Después dibuja una mariposa, una flor... Hasta que un día tropieza con una pelota y se hacen amigas. Las dos juegan juntas y se lo pasan muy bien, hasta que la caja resulta demasiado pequeña para alojar sus sueños y deciden marchar.

En esta historia encontramos a la protagonista instalada en la comodidad de vivir dentro de una caja de zapatos. Prefiere vivir de esta manera que asumir los riesgos que implican un comportamiento libre, implícito en el hecho de abandonar su refugio. La amistad es un buen remedio contra el miedo.

Hizkuntza / Idioma **Euskaraz edo Gaztelaniaz / Euskera o Castellano**

Datak / Fechas **Azaroak 22, 23, 24, 25 Noviembre**

Ordutegia / Horario **10:30 - 15:30 / 9:30 - 11:15**

Iraupena / Duración aprox. **50 min**



Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloetarako Ikuskizuna  
Espectáculo para Segundo y Tercer Ciclo de Primaria

KAFE DIDAKTIKOA

Azaroaren 22an, asteartea // Martes, 22 de Noviembre

Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira

**KARLIK DANZA-k**

aurkezten du / presenta

# WANGARI, ZUHAITZ NESKA

Egilea / Autora **Itziar Pascual**

Zuzendaria / Directora **Cristina D. Silveira**

Antzezleak / Intérpretes **Elena Sánchez, Cristina Pérez, Amelia David**

*Antzerki eta dantza ikuskizuna daukagu hau, 2004an Bakearen Nobel Saria eskuratu zuen Wangari Maathai-  
ren irudian inspiratutakoa. Zuhaitz Neska esaten zio-  
ten emakume borrokalari eta aktibo honi: lurraren eta  
emakumeen alde eta pobrezia-  
ren kontra egin zuen lan  
etengabe.*

*«Basozain batek suteak kiskalitako baso erraustua  
du begien aurrean, baina ez du amore eman nahi. Be-  
hin batean Wangari entzudako alegia gogoratu du,  
kolibri xumearen alegia: basoan sugarrak ikaraga-  
rriak baziren ere, kolibriak mokoan ur tantak erama-  
ten jarraitzen zuen, ahal zuen ondoen egiten.*

*Alegiak Nyeri izeneko herrixkara garamatza, Afrikaren  
bihotzera, han jabetu baitzen Wangari Maathai nes-  
katoak Lurraren edertasunaz eta bizitzaren eta herio-  
tzaren zikloez bere amaren eta birramonaren eskutik.  
Bertan ikusten du baita nola diruak eta interesak Lurra  
mintzen duten ere».*

*Lurra gure etxea da, gure bizitza azken finean, eta gure  
esku dago planeta zaintzeko ekintzak aurrera erama-  
tea. Hau da ikuskizun honek islatu nahi duen mezua.*

Un espectáculo de Teatro y Danza inspirado en la figura  
de Wangari Maathai, Premio Nobel de la Paz en 2004  
y más conocida como la *Mujer Árbol*. Ella defendió la  
sostenibilidad del medio ambiente, el empoderamien-  
to de las mujeres y la lucha contra la pobreza.

*«En el espectáculo una guarda-bosques recuerda la fá-  
bula que escuchó contar a Wangari Maathai; la fábula  
del humilde colibrí, que a pesar del rigor de las llamas  
del bosque, sigue llevando con su pico una gota de  
agua, porque hace lo mejor que puede.*

*La historia nos acerca a Nyeri, en el corazón de África,  
donde la niña Wangari comienza a descubrir la belleza  
de la Tierra y los ciclos de la vida y de la muerte con su  
madre y su bisabuela. También descubrirá que el dine-  
ro y el interés hieren la Tierra como cuchillos...»*

Esta creación pretende compartir con los especta-  
dores/as la idea de que todos podemos emprender una  
acción concreta para cuidar el planeta, que es nuestra  
casa y nuestra vida.

Hizkuntza / Idioma **Euskaraz / Euskera**

Datak / Fechas **Azaroak 28, 29, 30 Noviembre**

Ordutegia / Horario **10:30 - 15:30 / 9:30 - 11:30**

Iraupena / Duración aprox. **60 min.**





Haur Hezkuntzarako Ikuskizuna  
Espectaculo para Educación Infantil

KAFE DIDAKTIKOA

Azaroaren 29an, asteartea // Martes, 29 de Noviembre

Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira

## TEATRO PARAISO ANTZERKIA-k

aurkezten du / presenta

# KUBIK

*Egileak / Autores* Rosa A. García, Charlotte Fallon, Marc Cerfontaine

*Zuzendaria / Directora* Charlotte Fallon

*Antzezleak / Intérpretes* Rosa A. García, Urtza Zuazo

edukiera  
mugatua  
130-140

*Bi aktorek eraikuntzen joko zuri bat manipulatzeko dute, metatu, itxuraldatu, eta mugitzen dena eta miatzeko espazio berriak sortzen dituen. Etengabe mugimenduan dagoen arkitektura honetan, bolumenak eta formak pantaila higikorrek sortzeko antolatzen dira, horietan irudi txikiak proiektatzen direlarik.*

*Jolasgunean, kolore, forma eta bolumenak proiektatzen dituzte bi antzezleak, hasieran bakarrik dagoen zuriaren gainean sentimenezko unibertsoa marrazteko. Irudiak sortzeko eta begiratzeko plazera deskubritzen dute elkarrekin, eta aldi berean, ikusle txikiak bidaiatzera, jolastera, deskubritzera, irudikatzen eta amets egitera gonbidatzen dituzte. Haiekin, dena mugitzen da, dena aldatzen da!!*

*Irrika-baso bihurtzen den eraikuntza-jokoa, irudi museo txikiari bizitza ematen dioten proiektzioak, paisaia sentisiblerik marrazten dituzten argiak, topaketa jostariak inspiratzen dituzten soinua... mundu batek beste bati uzten dio bidea*

*Ikuskizuna umeen jokoan oinarrituta dago. Umeek, ingurune fisikoarekin saiakuntzak egiten dituzte, berau ulertzeko helburuarekin. Era honetan, umeek, eskuetan darabiltzaten objektuak manipulatu, pentsamendua eraikitzen dute eta irudimenari atea irekitzen diote.*

Dos actores manipulan un gran juego de construcciones blanco que se apila y se transforma, que se mueve y crea nuevos espacios a explorar. En esta arquitectura en movimiento, los volúmenes y las formas se organizan para crear pantallas móviles, sobre las que se proyectan pequeñas imágenes.

En el espacio de juego, dos actores proyectan colores, formas y volúmenes, para dibujar un universo sensorial sobre el blanco original. Juntos descubren el placer de crear y mirar las imágenes mientras invitan a los pequeños espectadores a viajar, jugar, descubrir, imaginar y soñar. Con ellos, ¡todo se mueve, todo cambia!

Un juego de construcciones que se transforma en un bosque de emociones, proyecciones que dan vida a un pequeño museo de imágenes, luces que dibujan paisajes sensibles, sonidos que inspiran encuentros juguetones... un mundo da paso a otro mundo.

El espectáculo se inspira en el juego de los pequeños que experimentan con el entorno físico para comprenderlo. Así, ellos y ellas, mediante la manipulación de los objetos a su alcance, construyen su pensamiento y abren la puerta a su imaginación.

*Hizkuntza / Idioma* Euskaraz, Ingelesaz edo Gaztelaniaz / Euskera, Inglés o Castellano

*Datak / Fechas* Abenduak 12, 13, 14, 15, 16, 19, 20, 21, 22 Diciembre

*Ordutegia / Horario* 9:30 - 11:00 - 15:30

*Iraupena / Duración aprox.* 35 min.



Espectáculo  
con coloquio  
100 min

DBH-ko 1., 2. eta 3. MAilarako ikuskizuna  
Espectáculo para 1º, 2º y 3º de ESO

KAFE DIDAKTIKOA

Urtarrilaren 31n, asteartea // Martes, 31 de Enero

Entrega de guía y materiales para el aula

300 PISTOLAS TEATRO-k  
aurkezten du / presenta

# EL PERRO DEL HORTELANO

Egilea eta Zuzendaria / Autor y Director **Álvaro Morte**

Antzezleak / Intérpretes **Sara Gómez, Álvaro Morte, Anna Hastings, Esteban Jiménez**

Madrilgo 300 Pistolas konpainiak Lope de Vega-ren komedia hau landuko du, eta ez ikusleek antzeztan honetaz gozatzeko asmoarekin bakarrik, antzeztan agertuko diren baloreen inguruko hausnarketa egiteko ere bai: maitasuna, pasioak eta dakartzaten katramilak, jeloskortasuna, ohorea, engainua... XVII. mendeko antzerkigintza islatzen duten gaiak dira eta antzeztan honetan oinarritzko gaiak dira.

Talde artistiko honek antzerkigintza klasikoa ikusle berriengana hurbiltzeko erronkari heldu dio. Testuaren eta bertan islatutako egoeren komikotasunaren aldeko apustua egin dute, antzeztanari izaera dinamiko eta dibertigarria emanez, eta aldi berean, antzeztan berritzailea eta gogoetazkoa bilakatuz.

Ikuskizunak ikusleak eta profesionalak hunkitu ditu. Horren erakusgarri da Almagroko Antzerkigintza Klasikoaren Jaialdiko epaimahaiak emandako Sari Berezia eta Errioxako Garnacha Antzerkigintzako Lehiaketa Nazionalean lortutako 3 sariak eta 4 izendapenak.

**Ikuskizuna amaitutakoan, hizketaldi bat egingo da antzeztan eta ikusleen artean eta bertan hainbat gai landuko dira, esate baterako... Klasiko bat zergatik da klasikoa? Klasiko bat garaikidea izan al daiteke? Klasiko batek hunkitu ahal nau?**

La compañía 300 Pistolas de Madrid aborda esta comedia de Lope de Vega no solo con la intención de que el público disfrute al máximo de esta pieza teatral, sino que además haga una reflexión sobre los valores que en ella se nos presentan: el amor, las pasiones y su enredo, los celos, el honor, el engaño... Asuntos representativos del teatro del siglo XVII y que son temas centrales en esta obra.

Este equipo artístico asume el reto de acercar el teatro clásico a los nuevos públicos, apostando por la comicidad del texto y sus situaciones, imprimiendo a la obra un carácter dinámico y divertido, a la vez que innovador y reflexivo.

El espectáculo ha emocionado a espectadores/as y profesionales, como lo atestigua la obtención del Premio Especial del Jurado del Festival de Teatro Clásico de Almagro y los tres premios y 4 nominaciones del Certamen Nacional de Teatro Garnacha de Rioja.

**Al finalizar la representación se realizará un coloquio entre los actores y el público**, donde abordaremos cuestiones como ¿Por qué un clásico es un clásico? ¿Puede un clásico ser contemporáneo? ¿Puedo emocionarme con un clásico?

Hizkuntza / Idioma **Gaztelaniaz / Castellano**

Datak / Fechas **Otsailak 7, 8 Febrero**

Ordutegia / Horario **9:30 - 12:00**

Iraupena / Duración aprox. **100 min.**



Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloetarako Ikuskizuna  
Espectáculo para Segundo y Tercer Ciclo de Primaria

## TEATRO PARAISO ANTZERKIA-k

Aurkezten du / Presenta

KAFE DIDAKTIKOA

Martxoaren 14an, asteartea // Martes, 14 de Marzo

Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira

# KOOPERAROCK

Egilea eta Zuzendaria / Autor y Director **Maxi Rodríguez**

Antzezleak / Intérpretes **Amaia Salazar, Maitane Goñi, Ander Basaldua, Aitor de Kintana**

Donostia-San Sebastián 2016, Europako kultur hiriburua ekimenak kooperatibismoaren gaia lantzen duen Kooperarock proiektua garatzera gonbidatu ditu Teatro Paraiso eta Mondragon Unibertsitateko Lanki Institutua.

Ikuskizun berri bat sortzen ari dira proiektu horren baitan eta haren behin-behineko izenburua ere Kooperarock izango da. Istorio dinamiko eta poetiko horretan, jatorri desberdineko lau pertsonaia elkartuko dira eta aurre egingo diote elkarri. Beren desberdintasunak aukera ona direla deskubrituko dute, haiei esker elkarren osagarri direlako. Hala, proiektu kooperatibo bat sortzea erabakiko dute eta talde-lanaren, bakoitzaren esfortzuen eta bata bestearen laguntzaren garrantziaren lekuko izango dira.

Baina dena ez da horren erraza. Aldez aurreko esperientziarik eta erreferenterik ez dutenez, gatazkak sortuko dira haien artean: inplikazio maila desberdina, erantzukizunen banaketa, irizpideen arteko aldea. Krisi-egoeran egongo dira eta izaki kooperatiboak edo lehiakorrek diren pentsatuko beharko dute.

Azkenean, taldearen ametsa nagusituko da eta guztiak ere beren bizitza pertsonal eta kolektiboaren bilakaeratik poztuko dira, ikusleei esperientziara batzeko gonbita luzatuz.

Donostia-San Sebastián 2016, capital europea de la Cultura, ha invitado a Teatro Paraiso y al Instituto Lanki de la Universidad de Mondragón, a desarrollar el proyecto *Kooperarock*, centrado en el tema del cooperativismo.

Dentro de este proyecto se está creando un nuevo espectáculo cuyo título provisional es también Kooperarock. Una historia dinámica y poética en la que cuatro personajes de procedencias diversas, se encuentran y se confrontan. Descubren que sus diferencias son una oportunidad, porque les permiten complementarse. Así deciden crear un proyecto cooperativo, en el que van a experimentar la importancia del trabajo en común, del esfuerzo individual y de la ayuda mutua.

Pero no todo es fácil. Como no tienen experiencia previa, ni referentes, aparecen los conflictos entre ellos y ellas, los diferentes grados de implicación, el reparto de responsabilidades, la diferencia de criterios. Llega la crisis y se plantean si son seres cooperativos o competitivos.

Finalmente el sueño colectivo se abre paso y juntos celebran la transformación de su vida personal y colectiva e invitan al público a sumarse a la experiencia.

Hizkuntza / Idioma **Euskaraz / Euskera**

Datak / Fechas **Martxoak 21, 22, 23, 24 Marzo**

Ordutegia / Horario **10:30 - 15:30 / 9:30 - 11:30**

Iraupena / Duración aprox. **60 min.**



Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako ikuskizuna  
Espectáculo para Primer Ciclo de Primaria

KAFE DIDAKTIKOA

Martxoaren 28an, asteartea // Martes, 28 de Marzo

Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira

PANTA RHEI ANTZERKIA-k  
aurkezten du / presenta

# TIRA! AURRERA!

*Egileak / Autores:* **Juan Rodríguez, Emilio Fdez. de Pinedo**

*Zuzendaria / Director:* **Juan Rodríguez**

*Antzezleak / Intérpretes* **Maider Galarza, Emilio Fdez. de Pinedo**

*Payasak, zeregin bakarra zeuka bizitzan, pozik izan eta poztasuna eragin besteengan... Egun txar batean bera eta bere ilauneko koadrila dandarra, zaborontzian amaitzen dute. Arriskuan daude. «El triturador» zabor-kamioia badator eta zanpa-zanpa egin nahi die.*

*Payasak hiria zeharkatzen du laguntza bila, milaka arrisku ekidituz, lagundu nahi dien haur gatibu eta zelatuak topatzen ditu baina hauek ezin diote laguntzarik eman... Bai, hiriak mehatxu, eragozpen, debeku, arazo eta gehiegikeriak izkututzen ditu. A zer nolako miraria hirian bizirautea! Bizitzak ameslari handiei probak jartzen dizkie, baina irabazle nahi ditu. Payasak, ekimen eta bizitasunez, bere eskuzabaltasun eta elkartzun idealen atzetik egiten du lasterka.*

*Bi gaik egiten dute bat Tira! Aurrera! antzezlanean: heziketa eta hiriko umeak. Hiriak etxean geroz eta bakartiago dauden umeak ahaztu ditu. Beren etxegotorleketan daude itxita bideo-jokoekin jolasten eta telebista ikusten. Ezin dute ezer ikertu, ezer deskubritu eta ezin dira ezerekin harritu ezin daitezkeelako kallean aske jolastu.*

*Ikuskizun honekin, heziketa pertsona bakoitzak askatasunaren bidean eginiko denbora-tarte gidatu gisa defendatu nahi dugu.*

Payasa, solo tenía una misión en la vida, ser feliz y hacer felices a los demás. Un mal día ella y su cuadrilla de peluches y juguetes abandonados acaban en el cubo de la basura. Corren un gran riesgo. El camión de la basura «el triturador» está en camino y quiere devorarlos.

Payasa corre por la ciudad en busca de ayuda, sorteará mil peligros urbanos, encontrará a muchos niños cautivos y vigilados, que quieren, pero no pueden ayudarla. Sí, la ciudad encierra amenazas, barreras, prohibiciones, conflictos, abusos. ¡Qué milagro es sobrevivir en la ciudad! La vida pone a prueba a los grandes soñadores, pero quiere verles ganar. Payasa con iniciativa y vivacidad corre tras su ideal de generosidad y solidaridad.

Dos temas fluyen a través de *Tira! Aurrera!*: la educación y los niños en la ciudad. La ciudad se ha olvidado de los niños y niñas que están cada vez más solos en casa. Están encerrados en su casa-fortaleza con sus video-juegos y su televisión. No pueden descubrir, explorar, maravillarse porque no pueden jugar libremente en la calle.

A través de este espectáculo queremos defender la posibilidad de la educación como una conducción temporal en el camino de cada individuo hacia la libertad.

*Hizkuntza / Idioma* **Euskaraz / Euskera**

*Datak / Fechas* **Apirilak 4, 5, 6, 7 Abril**

*Ordutegia / Horario* **10:30 - 15:30 / 9:30 - 11:15**

*Iraupena / Duración aprox.* **55 min.**



## Haur Hezkuntzarako Ikuskizuna Espectaculo para Educación Infantil

KAFE DIDAKTIKOA

Maiatzaren 9an, asteartea // Martes, 9 de Mayo

Ikasgelarako gida eta materialak eskura emango dira

## CIA DE DANZA FERNANDO HURTADO-k aurkezten du / presenta

# LOREZ LORE

Egileak eta Zuzendariak / Autores y Directores **Inma Montalvo, Fernando Hurtado**

Antzezleak / Intérpretes **Inma Montalvo, Abraham Muñoz**

«Lorez Lore» dantza ikuskizuna da, haurren jakin-mina eta «mugimenduan dagoen giza gorputzaren» inguruan duten ikuspegia garatzea helburu duena, eta istorio bat kontatzeko orduan giza gorputza hitzekin nola konbinatzen den erakustea ere bai.

«Neguko iluntze batean, neskato bat etxera bidean zen, baina hotzak eta haizeak arnasarik gabe uzten zuten. Goi-goitik begira zeukan norbait. Eguzkiaren semea zen! Hura da urtaro aldaketaz arduratzen dena Ziztu bizian jaitsi zen neskatoari laguntzera eta esku-zabaltasunez, lore bat oparitu nahi izan zion. Baina hura sorpresa! Denboraren erruz, ezin izan zuen lortu.

Berehala erabili zuen bere boterea eta urtaro guztietatik igaro zen. Negua, udaberria, uda eta udazkena, guztiak igaro zituen, eta guztia imajinatzen zuen modukoa ez zela ikasi zuen. Gauzak lortzeko lan egin behar bada ere, ezin dugu etsi!

Eta azkenean, eguzkiaren semeak neskatoaren lagun egitea lortu zuen, baina hori bai... jarraikitasunaren, esfortzuaren eta sormenaren laguntzarekin».

«De Flor en Flor» es un espectáculo de danza que quiere desarrollar la curiosidad y ampliar la visión de estos niños y niñas del «cuerpo humano en acción», y como éste se combina con las palabras para narrar una historia.

«En un atardecer de invierno, una niña regresaba a su casa, pero el frío y el viento se lo impedían sin aliento. Desde bien arriba, alguien la observaba, ¡es el hijo del sol! encargado del cambio de estación. Rápidamente bajó a ayudarla, y generosamente con una flor quiso obsequiarla. ¡Pero gran sorpresa la suya!, cuando observó, que por culpa del tiempo, no lo consiguió.

Enseguida su poder utilizó, y por todas y cada una de las estaciones pasó. Invernó, primaveraó, veraneó y otoñoó, y ahí aprendió, que no todo es, como él se lo imaginó. ¡¡Por mucho que las cosas cuesten trabajo, no hay que venirse abajo!!

Y al final, el hijo del sol consiguió su amistad, pero eso si... con ayuda de la constancia, el esfuerzo y la creatividad».

Hizkuntza / Idioma **Euskaraz / Euskera**

Datak / Fechas **Maiatzak 16, 17, 18, 19, 22, 23 Mayo**

Ordutegia / Horario **10:30 - 15:30 / 9:30 - 11:00**

Iraupena / Duración aprox. **40 min.**

# ARGIBIDEAK

Ikasturte berriaren hasieran, 2016/2017 denboraldiko egitaraua aurkeztuko da ikastetxeetan.

## SALNEURRIA

Sarreraren prezioa **4,50** eurokoa izango da ikasle bakoitzarentzat. Prezio hauek ezartzeko, antolakuntzan esku hartu duten erakundeek diru-laguntzak eman dituzte, izan ere kostu erreala ezarritako prezioaren ginetik dago.

Irakasleek ez dute sarrerarik ordaindu beharko.

## ERRESERBAK

Eserlekuen erreserba ondoko egunetan egingo da: **Irailaren 12tik 23ra (9:00etatik 15:00etara)**

**Telefono bidezko erreserbak:** antolatzaileekin harremanetan jarri beharko zara, ikastetxearen datuak, erreserbatu nahi den toki kopurua, arduraduna eta aukeratutako ikuskizuna adieraziz. Tel. 945 274 284

**Erreserbak online:** gure web orrian ([www.teatroparaiso.com/es/teatro-benat-etxepare/reserva-de-entradas](http://www.teatroparaiso.com/es/teatro-benat-etxepare/reserva-de-entradas)) aurkitzen den formularioa bete beharko duzu. \* ikurra duten eremu guztiak bete beharko dira derri gorrez, ondoren antolakuntzak jaso dela berretsiko du posta elektronikoko baten bidez.

Erakundeak ikuskizunetara joateko asmoa duen baieztatu beharko du e-mailez.

Eserlekuak, eskaera ordenaren arabera banatuko dira, hauek agortu arte.

## SARRERA-TXARTELAK

### ORDAINDU ETA JASOTZEA

Ikastetxeek, sarreren zenbatekoaren %100a sartu beharko dute hamabost egun lehenago Kutxabank-eko edozein bulegotan.

- La Casa del Libro batu daitezke sarrerak, kafea hartzeko tarte didaktikoan zehar eta hurrengo egunetan. Antzokian ere batu ahalgo dira, antzerkiaren egunean.
- Antolakuntzak faktura bidaliko dio ikastetxe bakoitzeko erreserbaren arduradunari, telefonoz berretsitako ikasle kopuruaren arabera zenbatekoarekin. Ez da dirurik itzuliko antzokira joan aurretik jakinarazi ez bada eta hartarako ezinbesteko arrazoirik ez badago (epidemiak, klima...).
- Erreserbak zein ordainketak egiteko honako datu hauek adierazi beharko dira: Ikuskizunaren zenb. + Ikastetxearen izena (laburtua) + Sarrera-kopurua.  
**Adibidez: 3 Robledal Ik.-70**

# INFORMACIÓN

Al comienzo del nuevo curso se presentará a los centros escolares la programación de la temporada 2016/2017

## PRECIO

El coste de la entrada para cada alumno/a es de **4,50** euros. Este precio está subvencionado por las entidades organizadoras, ya que su coste real es superior al precio establecido.

La entrada para el profesorado es gratuita.

## RESERVAS

La reserva de localidades se realizará del **12 al 23 de Septiembre (de 9:00 a 15:00 horas)**.

**Reservas Telefónicas:** contactar con la organización, señalando los datos del centro, número de plazas reservadas, persona responsable y espectáculo elegido. Tfno. 945 274 284

**Reservas on-line:** rellenar el formulario que se encuentra en nuestra página web [www.teatroparaiso.com/es/teatro-benat-etxepare/reserva-de-entradas](http://www.teatroparaiso.com/es/teatro-benat-etxepare/reserva-de-entradas). Rellenar todos los campos obligatorios marcados con \*, después la organización enviará una confirmación de recepción.

La organización confirmará por e-mail la asistencia a los espectáculos.

Las plazas se adjudicarán por estricto orden de recepción, hasta agotar las mismas.

## PAGO Y ENTREGA

### DE ENTRADAS

Los centros deberán efectuar el ingreso del 100 % de las entradas con quince días de antelación, en cualquiera de las oficinas de Kuxabank.

- Las entradas se pueden recoger en La Casa del Libro durante el café didáctico y en los días posteriores. También en el teatro el día de la función.
- La organización enviará la factura a la persona responsable de la reserva de cada centro escolar por el importe correspondiente al número de alumnos/as confirmados por teléfono. No se realizarán devoluciones que no se hayan comunicado con antelación a la asistencia al teatro y que no estén justificadas por causa mayor (epidemias, climatología...)
- Para el pago de las reservas se deberá hacer constar los siguientes datos: N° espectáculo + Nombre del centro (abreviado) + N° de entradas.  
**Ejemplo: 3 - C.E.P. Robledal - 70**

KONTU ZENBAKIA / N° DE CUENTA: **KUTXABANK ES83 2095 3112 27 1092322915**

## HARREMANETARAKO / CONTACTO:

**GRACI LÓPEZ**

Erreserbak egiteko telefonoa / Tfno de reservas: **945 274 284**

Emanaldi-garaian deitzeko telefonoa / Tfno durante las funciones: **688 927 700 / 639 138 804**

E-mail: **benat-etxepare@teatroparaiso.com**

Teatro Paraiso – **Abetxuko Pueblo 14 - 01013 VITORIA-GASTEIZ**

Beñat-Etxepare Aretoko Helbidea / Dirección de la Sala Beñat-Etxepare. **Centro Cívico Iparralde · Plaza Zuberoa, 1**

# PROGRAMAZIOA / PROGRAMACIÓN

1

BAMBALINA TEATRO-k *aurkezten du / presenta*

**CUBOS.** Espectáculo inauguración – Inteligencias múltiples

*Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloetarako Ikuskizuna*  
Espectáculo para Segundo y Tercer Ciclo de Primaria

*Datak / Fechas:* Azaroak 9 Noviembre

2

PRODUCCIONES MOHICANO Y PABELLON 6-k *aurkezten dute / presentan*

**TEATRO MOHICANO**

*D.B.H.-ko 1., 2. eta 3. Mailarako ikuskizuna / Espectáculo para 1º, 2º y 3º de ESO*

*Datak / Fechas:* Azaroak 15, 16, 17 Noviembre

3

ZUM ZUM TEATRO-k *aurkezten du / presenta*

**ZAPATA-KAXA BATEAN BIZI ZEN NESKA**  
**LA NIÑA QUE VIVIA EN UNA CAJA DE ZAPATOS**

*Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako Ikuskizuna / Espectáculo para Primer Ciclo de Primaria*

*Datak / Fechas:* Azaroak 22, 23, 24, 25 Noviembre

4

KARLIK DANZA-k *aurkezten du / presenta*

**WANGARY, ZUHAITZ NESKA**

*Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloetarako Ikuskizuna*  
Espectáculo para Segundo y Tercer Ciclo de Primaria

*Datak / Fechas:* Azaroak 28, 29, 30 Noviembre

5

TEATRO PARAISO ANTZERKIA-k *aurkezten du / presenta*

**KUBIK**

*Haur Hezkuntzarako Ikuskizuna / Espectáculo para Educación Infantil.*

*Datak / Fechas:* Abenduak 12, 13, 14, 15, 16, 19, 20, 21, 22 Diciembre

6

300 PISTOLAS-ek *aurkezten du / presenta*

**EL PERRO DEL HORTELANO**

*D.B.H.-ko 1., 2. eta 3. Mailarako ikuskizuna / Espectáculo para 1º, 2º y 3º de ESO*

*Datak / Fechas:* Otsailak 7, 8 Febrero

7

TEATRO PARAISO ANTZERKIA-k *aurkezten du / presenta*

**KOOPERAROCK**

*Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Zikloetarako Ikuskizuna*  
Espectáculo para Segundo y Tercer Ciclo de Primaria

*Datak / Fechas:* Martxoak 21, 22, 23, 24 Marzo

8

PANTA RHEI ANTZERKIA-k *aurkezten du / presenta*

**TIRA! AURRERA!**

*Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako Ikuskizuna / Espectáculo para Primer Ciclo de Primaria*

*Datak / Fechas:* Apirrikak 4, 5, 6, 7 Abril

9

CIA. FERNANDO HURTADO-k *aurkezten du / presenta*

**LOREZ LORE**

*Haur Hezkuntzarako Ikuskizuna / Espectáculo para Educación Infantil.*

*Datak / Fechas:* Maiatzak 16, 17, 18, 19, 22, 23 Mayo

# Compromiso con **Beñat Etxepare**-rekiko konpromisoa

En fundación Vital queremos que los pequeños se expresen de forma divertida y espontánea mientras aprenden y se forman de manera integral. Por esa razón, desde hace años, colaboramos con **Teatro Beñat Etxepare**.



Vital Fundazioen arabako txikiak ikasten eta trebatzen diren bitartean era dibertigarri eta espontaneoan adieraztea nahi dugu. Horregatik urte asko daramatzagu **Beñat Etxepare antzokiarekin** elkarlanean.

**Vital** gizarte ekintza  
obra social

